

I.9. GOAZEN BARNETEGIRA!

GOAZEN BARNETEGIRA!

Datorren astean barnetegi batera joango gara gelakide guztiok. Hainbat jarduera egingo ditugu han. Ondo pasatuko dugu!



01

Autobidean, autoek 5,20 € ordaintzen dute eta autobusek erdia gehiago.

Zenbat ordainduko du gure autobusak?


- A. 2,60 €
- B. 6,50€
- C. 7,80 €
- D. 8,80 €



02

Gelan 12 neska eta 12 mutil gara. Bidaiarako ogitartekoa aukeratzeko, bozketa egin dugu (txorizoa, gazta edo urdaiazpikoa).

Hona hemen bozketaren grafikoa:



Adierazi ondorengo esaldi hauek **EGIAZKOAK (E)** ala **GEZURREZKOAK (G)** diren:

	E	G
A. Nesken erdiek baino gehiagok txorizoa aukeratu dute.		
B. Bakarrik mutilek aukeratu dute gehiago urdaiazpikoa gazta baino.		
C. Mutilen erdiek baino gutxiagok urdaiazpikoa aukeratu dute.		
D. Bai neskek eta bai mutilek gutxien aukeratu dutena gazta da.		

03

Ogitarteko bakoitza egiteko, ogi-barra baten herena eta 50 g txorizo behar ditugu.

Begiratu prezio hauei:



200 g 1,20 €



Ogi barra 1,20 €

Zenbat balio du ogitarteko bakoitzak?

- A. 60 zentimo.
- B. 70 zentimo.
- C. 80 zentimo.
- D. 90 zentimo.

04

Adierazi "X" batekin motxilan daramatzagun objektu hauek zer forma edo irudi geometriko duten.

								
Prisma								
Zilindroa								
Konoa								
Esfera								

05

Egun batean mendira joango gara eta motxilan, gehienez, bi kilo eraman ditzakegu.



0,18 kg



0,5 kg



450 g



1/4 kilo



850 g



0,3 kg



330 g



250 g



1,380 kg

Aukeratu 2 kg baino gutxiago pisatzen duen konbinazioa.

- A. Euritakoa, botila bat ur, anoraka eta linterna.
- B. Kantinplora, ogitartekoa, eguzkitako krema eta argazki-kamera.
- C. Anoraka, linterna, botila bat ur eta sandwicha.
- D. Linterna, kantinplora, ogitartekoa eta botila bat ur.

06

Askaltzeko, platanoa, gazta zati bat, txokolate-barratxo bat eta galleta ditugu.

Bi gauza ezberdin aukeratu behar ditugu.




Zenbat konbinazio ezberdin egin ditzakegu?

- A. Hiru.
- B. Lau.
- C. Sei.
- D. Zortzi.

07

Ikusi grafiko honetan Euskadiko eta Nafarroako mendi batzuen garaiera.

Lakiz mendilerroak 950 m-ko garaiera du.



Adierazi ondorengo esaldi hauek **EGIAZKOAK (E)** ala **GEZURREZKOAK (G)** diren

	E	G
A. Garaienaren eta baxuenaren artean 1.000 m baino gehiagoko aldea dago.		
B. Bigarren mendi baxuenak 400 m baino gutxiago ditu.		
C. Lakiz mendilerroa lau garaienen artean dago.		
D. 1.400 m baino garaiagoak diren hiru mendi daude.		